

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ekainaren 15era luzatu da 2016ko Nekazaritza Politika Bateratuko laguntzak eskuratzeko eskaera bakarrera aurkezteko epea

Asteartea, 2016.eko maiatzak 17

Ekainaren 15era arte, egun hori barne, [eskaera bakarra](#) aurkeztu ahalko da 2016ko Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB) laguntzak eskuratzeko; izan ere, Europako Batasunak epea bigarren aldiz luzatzea erabaki du, zenbait herrialdek eskatu zuten moduan, kaltetutako sektoreetako profesionaleri erantzuteko asmoz.

Luzapenak jadanik aurkeztutako eskaera bakarren aldaketa-epea ere jasotzen du, eta honako hauei aplikatzen zaie: oinarritzko ordainketa-eskubideen lagapenen aurkezpenei, Erreserba Nazionalari ordaintzeko oinarritzko eskubidearen eskaerei eta produktuak prozesatzen dituzten industriarekin egindako kontratuak aurkezteko epeari, tomateari lotutako laguntza eskatu zutenen kasuan. Halaber, ekainaren 15era arte luzatuko da partzelak NPB laguntzen eskatzailearen esku uzteko epea.

Eskaeraren aurkezpena telematikoki egingo da, erakunde laguntzaileen edo eskatzailearen beraren eskutik, bere ziurtagiri digitala erabiliz zuzenean, Nafarroako Gobernuko webgunean dagoen [SGA aplikazio](#)aren bitartez. Erakunde laguntzaileek, aurrez, lankidetzahitzarmen bat izenpetu beharko dute Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuarekin.

Titulartasun-aldaketen izapideak nekazaritza-ganberetan egingo dira, eta oinarritzko ordainketako eskubideen eskaerak Erreserba Nazionalean, Departamentuan bertan, Errentei Laguntzeko atalean.

Hasiera batean, [epea apirilaren 30ean amaitzen zen](#). Nafarroan, orain arte, espero diren 15.000 eskaeratatik, 13.500 aurkeztu dira.